

Aingern Epaltza

Reverte, itzal argiz

A

rturo Pérez-Reverte erdal idazlea ez da morroi atsegina. Harroputz eta bere usteko agertzen da elkarrizketetan. Espainolkeria dario bere noble-tan. Haren liburuek urrun dituzte berrikuntza eta arriskua. Erdeinuz begiratzeko literatura jasoari. Turmix literarioaren aitzindari, bertze egile eta garai batzuetan arrakastatsu gertatu diren erduetan aritzen da, bazkan, banpiroa odol bankuan bezain aise. Gainera, aparrean dago Espainiako Estatuko irakurleen gogoan.

Reverte erne egoten da efemerideei. Duela lau urte, enkarguzko lana erantsi zien Trafalgarko batailaren bigarren urteurrenaren ospakizunei. Orain, ez dio hutsik egin 1808ko maiatzaren 2ko gertakarien gorazarreari.

Unamuno euskaldunari bezala, Espainiak min ematen dio Reverteri. “Episodio nazionalerako” isuri nabarmena agertu du hondar urteetan. Espainiar inperioaren XVII. mendeko gainbeherari sail osoa eskaini zion, hala behar eta, garaiko gazte bizkaitar baten ikuspegian ezkutatuturik berea. Gurea ere baden XIX. mende hasierako krisi politiko-soziala aspaldi handitik du ikusmiran.

Frankismoan heziak garenoi, orduko irakaskuntza zoldazuari loturik ageri zaigu Madrilgo herri xehearen altxamendua aliatu frantsesaren kontra. Zaku berean ditud Numantziaren errautsak, erre-gina katolikoaren atorra zurruna, Agustina Aragoikoaren kanoia eta Moscardó generalaren monokulo prusiar-mesetarioa.

Alde horretatik begiratuta, Espainiako pentsamenduan Aznarrekin batera abiatu eta Zapateroren agintaldian atertu ez den *revival* neokontserbadorearen inperio-minean sar genezake, lehen behakoan, Reverteren lana. Hark ere, itxuraz, “Espainia, zer hintzen eta non hago?” galdetzen dio bere buruari. Alta, bertze batzuek ez



INIGO AZKONA

bezala, aizkoraz ekiten dio mitoari. Bere aberriaren zorigaitza ez dio inongo konjurazio judeo-masonikoari egozten. Agintarien berekoikeria eta gaitasun eza eta herriaren atzerakoikeria, horra, Reverteren iduriz, bere herriaren drama, ilustratuen kanpoederkeria ahanzi gabe.

Un día de cólera niri, lehen kapitulutetan, harako *¿Arde París?* hura ekarri dit gogora, Dominique Lapierre frantsesak eta Larry Collins estatubatuarrak elkarrekin egindako lanen saileko lehenbizikoa, eta nazioarteko lehen *best-sellerra*. Lan horretan, kazetari bikote honek koraltasuna ekarri zioten kronika historiko-periodistikoari, literaturatik ebatsita. Handik aitzina, letra larriz idazten diren gertakarien kontakizuna ez zuen gizon-emakume handien bozak eginen. Aldiz, mikrohistoriaren kontzeptuaren bidetik, puzzle baten gisara osatuko zuten

dozenaka pertsonaia handi nahiz txikiren istorio, kontakizun eta ikuspegiak. Lapierrek eta Collinsek protagonista zuzenak buruz buru elkarrizketatuta atera zuten beren liburuertarako lehen gaia. Reverte dokumentazio historikotik elikatu behar izan da nagusiki, eta zuloak irudimenaren laguntzaz tapatu. Kazetari senak gainerakoa egin du: Madrilgo putazainaren ibilerak, Lapierren eta Collinsek erresistente komunistarekin bezain egiantzeko egin

ditu Cartagenako idazleak.

Izan gaitetzen, beraz, barkaberak. Ikas dezagun zerbait. Uste handikoa? Gure arteko bat baino gehiago ez litzateke apalagoa bertze garai batzuetako literatura ezagutu eta zikutuko balitu Revertekek ezagutzen eta zikutzen duen bezala. Nazionalismoa, bertzalde, ez da gure nobelagintzatik aparte. Irakurlea harrapatzeko idazle honek aurkitu duen formularen jabe egiteagatik ez genuke gutako frankok diru guti ordainduko. Eta berritzaile, abangoardiak akabatu zirenez geroztik, nor da hemen berritzaile? ■

« Espainiako pentsamenduan Aznarrekin batera abiatu eta Zapateroren agintaldian atertu ez den *revival* neokontserbadorearen inperio-minean sar genezake, lehen behakoan, Arturo Pérez-Reverteren lana »